

# Burdina, perla eta Zoriona



*Egilea: Jennifer Chorro Echevarría*  
*Zuzendaria: Urtza Garay Ruiz*  
*Gradu Amaierako Lana. Lehen Hezkuntzako Gradua*  
*2014-2015 ikasturtea*



*Esta obra está bajo una licencia de Creative Commons Reconocimiento-NoComercial 4.0 Internacional*



Nire ipuina, biraka eta biraka, iritsi da hiru seme-  
alaba izan zituen ama batengana.

Emakume hura gizon batekin ezkondu zen eta etxe  
batean bizi ziren, Ginean, bizitzeko behar zutena  
soilik zeukatela.

Seme bat eta bi alaba izan zituzten.

Seme zaharrenari, Burdina jarri  
zioten izena; bigarrenari, alabetan lehengoari,  
Perla; eta hirugarrenari, Zoriona.





Oso bizimodu xumea izan arren zoriontsuak izan ziren  
luzaroan, gaixotasun larri baten ondorioz, aita hil zen  
arte.

Une hartatik aurrera, premia gorria nagusi izan  
zen etxe baketsu hartan.





Seme- alabak hazten joan ziren eta ez zen batere erraza, gutxienez egunean behin, jateko zerbait lortzea.

Sarritan ez zuten ezer lortzen eta amak mendian bildutako intxaur gutxi batzuekin konformatu behar izaten zuten. Amak hauek salduta diru pixka bat lortzen zuen egunak ziren zoriontsuenak; horrelakoetan, gari (Yucarekin egindako irina) pixka bat erosteko aukera izaten zuen.






Egun batean eta asko pentsatu ondoren, seme zaharrena  
bizimodu hobe baten bila joan zen.




Eta bai lortu ere. Izan ere, egun gutxitan errege  
aberats bat izatea lortu zuen.






Bigarrenak anaia zaharraren bidari jarraitu zion.  
Etzetik alde egin zuen Malira, beste herri bateko erregina  
egin zuten eta aberastu egin zen.





Hirugarrenak ere, zalantza ugari izan ondoren, ama  
utzi eta etxetik alde egin zuen.

Ama bakar- bakarrik geratu zen eta ahal zuen moduan  
bizi izan arren, premia gorrian.





Zenbait urte pasatu ondoren, saltzaile ibiltari batek esanda, seme zaharrena urruneko herri bateko erregea zela jakin zuen amak eta hura ikustera joaten erabaki zuen.





Gauetz iritsi zen herri hartara eta orduan semearen bila ez hasteagatik, kalean egin zuen lo.


Hurrengo goizean, seme jauregitik atera zenean gortearekin batera, amarekin egin zuen topo.

Berehala ezaqutu zuen, baina deseroso eta lotsatu sentitu zen, ama zikin-zikin zegoelako. Bi aldiz pentsatu gabe, herritik bidali zuen. Oso penatuta, ama bere etxera itzuli zen.





Egun batzuk geroago, beste saltzaile ibiltari batek esan zion alabetan zaharrena urruneko beste herri bateko erregina zela.





Ama, itxaropentsu, herri hartara joan zen eta  
Perlarekin harremanetan jartzen saiatu zen, haren  
anaiarekin egin zuen bezala.

Baina aurkitu zuenean, Perlak herritik bidali zuen,  
anaia zaharrenak bezalaxe.

Ama bere etxe ziztrinera itzuli zen, erabat atsekabetuta.





Aste batzuk geroago, hirugarren saltzaile batek esan zion alaba gazteena, Zoriona, urruneko herri batean bizi zela eta anai-arrebak bezala hura ere erregina zela.

Modu berean hartuko zuela pentsatuta, nahiago izan zuen etxean geratu eta premia gorrian bizitzen jarraitu.

Hala ere, saltzailea eta herriko buruzagia tematu egin zirenez, azkenean bideari ekin zion, alaba gazteena ikusteko asmoz.





Aurrekoetan bezala, gauz iritsi zen eta biharamunera arte itxaron behar izan zuen alaba ikusteko.

Hurrengo egunean, erregina jauregitik atera zenean, urrundik ezagutu zuen ama, itxura zikina eta ziztrina izan arren.

Haren bi anai-arrebek ez bezala, erregina zalditik jaitsi eta ama besarkatzera joan zen, gortea harrituta utzita. Oso pozik zegoen berririko amarekin topo egiteagatik. Zorionak ama errege-jauregira eramateko eta ongi zaintzeko agindu zien bere mendekoei. Erregina berririko zaldira igo zen eta





Jauregira itzuli zenean, ama garbi, ongi jantzita eta  
poz-pozik aurkitu zuen harrera on hura zela eta.

Elkarrengandik bereizi zirenetik bakoitzak bizi  
izandakoa kontatu zioten elkarri eta gaua laburra  
geratu bazitzaien ere, amak beste seme- alabarekin  
gertatutakoa kontatu zion, bai eta nola sentitu zen ere.

-Burdinak oso zikin ikusi ninduen bere jauregiaren  
aurrian eta bota egin ninduen. Perlak ere gauza bera  
egin zuen eta zalantzarik egin gabe bidali ninduen  
bere erresumatik. Baina zuk, berriz, Zoriona, zure  
maiteko zaituzte beti.

Eta hala izan zen.





Ipuin hontan agertzen diren irudi testuak helburu hezitzaile bat eduki ditzaten, Gradu Amarrerako Lana gauzatzeko erabiliak izan dira. Ipuin honek ez du erabilpen komertzial ezta dirua irabazteko asmorik. Irudiak eta testuak iturri hauetatik eskuratu dira: Larrategui Gómez, Morente Luque, Ramírez Cores, Elizalde Gastearena o Garate Golmaio. (2012). Afric Forum.



